

Nafarroako Herribeherako baskoi populua erromatar aldiak: Arkeologia eta Hizkuntza

(The Basque population in Navarre in the Roman period: Archaeology and Language)

Urtasun Antzano, Erlantz

Antso Azkarra 27-7^oA
31007 Iruñea

BIBLID [1137-4489 (1997), 8; 187-203]

Nafarroako Gobernuaren laguntzaz Nafarroako Herribehera Lehen Ertaroen. Arkeologiaren eta Hizkuntzalaritzaren bidez eginiko hurbilketa historikoa izenburuko doktorego tesia euskaraz burutzen ari gara. Hori dela eta, Erromatar aldiko egoera kulturala aztertu dugu. Erromatar aldia deituriko epe historikoan Nafarroan bizi zen baskoi popularen baitan banaketa gizaekonomikoa zein gizakulturala egin ohi dute historialariek, hots Mendialdea eta Herribehera banaketa hau Erromatar aldirako ezezik, bertze garaietarako ere erabilia izan delarik. Banaketa honetan oinarrituz, bertzeak bertze, Erromatar aldiak Nafarroako Herribeheran bizi zen baskoi populuari zegokion hizkuntza nagusia-funtzio komunikatiboa betetzen zuena; alegia-latinak ordezkatu zuela plazaratu ohi dute historialariek. Komunikazio honen bidez bertzelako iritzia mahaigaineratu nahi dugu, hau da, latinak ez zuen Nafarroako Herribeheran bizi zen baskoi popularen hizkuntza nagusia ordezkatu, latinak bere aldeko egoera diglosikoa bizi zuen arren. Adierazpen hau azal dezagun, arkeologia eta hizkuntza tresna-tzat hartu ditugu.

Giltz-Hitzak: Nafarroa. Baskoiak. Arkeologia. Hizkuntza.

Con la ayuda del Gobierno de Navarra venimos realizando en euskara la tesis de doctorado que lleva por título: Nafarroako Herribehera Lehen Ertaroen. Arkeologiaren eta Hizkuntzalaritzaren bidez eginiko hurbilketa historikoa. Por ello hemos procedido al estudio de la situación cultural durante el período romano. En referencia a la etapa histórica denominada período romano, los historiadores acostumbra a realizar una división socioeconómica y sociocultural dentro del pueblo vascón, a saber: la Montaña y la Ribera, distinción que ha sido utilizada no sólo para el período romano sino también para otras épocas. Basándose en esa división, los historiadores acostumbraban a decir, entre otras cosas, que la lengua principal del pueblo vascón que durante el período romano habitaba en la Ribera de Navarra, es decir, aquella que vehiculaba la función comunicativa, había sido sustituida por el latín. Por medio de esta comunicación, quisieramos manifestar una opinión diferente de la expuesta, es decir, que el latín no sustituyó a la lengua del pueblo vascón que habitaba la Ribera de Navarra, aunque dicha lengua latina viviera una situación diglósica favorable. Para explicar esta posición utilizamos como instrumentos la arqueología y la lengua.

Palabras Clave: Navarra. Vascones. Arqueología. Idioma.

Avec l'aide du Gouvernement de Navarre nous réalisons en euskara la thèse de doctorat intitulée Nafarroako Herribehera Lehen Ertaroen. Arkeologiaren eta Hizkuntzalaritzaren bidez eginiko hurbilketa historikoa. C'est pourquoi nous avons procédé à l'étude de la situation culturelle durant la période romaine. En référence à l'étape historique dénommée période romaine, les historiens ont l'habitude de réaliser une division socio-économique et socio-culturelle au sein du peuple basque, c'est-à-dire: La Montagne et la "Riviera", distinction qui a été utilisée non seulement pour la période romaine, mais également pour d'autres époques. En se basant sur cette division les historiens ont l'habitude de dire, entre autres choses, que la langue principale du peuple basque qui habitait la "Riviera" de Navarre durant la période romaine, c'est-à-dire, celle qui véhiculait la fonction communicative, avait été remplacée par le latin. Au moyen de cette communication, nous aimerions manifester une opinion différente de celle qui a été exposée, c'est-à-dire, que le latin ne remplace pas la langue du peuple basque qui habitait la "Riviera" de Navarre, bien que cette langue latine ait vécu une situation bilingüe favorable. Pour expliquer cette position nous utilisons l'archéologie et la langue comme instruments.

Mots Clés: Nafarroa. Vascones. Archéologie. Langue.

SARRERA

Nafarroako Gobernuaren laguntzaz *Nafarroako Herribehera Lehen Ertaroan. Arkeologiaren eta Hizkuntzalaritzaren bidez eginiko hurbilketa historikoa* izenburuko doktorego tesia burutzen ari gara euskaraz. Hori dela eta, erromatar aldiko egoera kulturala aztertu dugu.

Erromatar aldia deituriko epe historikoan Nafarroan bizi zen baskoi populua bainan banaketa gizaekonomikoa zein gizakulturala egin ohi dute historialariek, hots, Mendialdea eta Herribehera, banaketa hau erromatar aldirako ezezik, bertze garaietarako ere erabilia izan delarik. Banaketa honetan oinarrituz, bertzeak bertze, erromatar aldiaren Nafarroako Herribeheran bizi zen baskoi populuar zigokion hizkuntza nagusia –funtzio komunikatiboa betetzen zuena, alegia– latinak ordezkatu zuela plazaratu ohi dute historialariek.

Komunikazio honen bidez bertzelako iritzia mahaigaineratu nahi dugu, hau da, latinak ez zuten Nafarroako Herribeheran bizi zen baskoi populua hizkuntza nagusia ordezkatu, latinak bere aldeko egoera diglosikoa bizi zuten arren. Adierazpen hau azal dezagun, arkeologia eta hizkuntza tresnatzat hartu ditugu.

NAFARROAKO HERRIBEHERA

Hasteko, gure ikerketari dagokion eremua mugatzea ezinezkoa dela aitortu behar dugu. Lizarerriko biztanlegoaren ustez Mendigorria deituriko herria Herribeheran dago, hots, Arga ibaiko Mendigorria herritik hegoalderantz, Eborarantz, Arga Behea funtsean, Herribehera da: Mendigorria, Larraga, Berbintzana, Miranda, Faltzes, Azkoien eta Funes delako herria. Baina herri horiei Deierri inguruko herrietatik Eborarantz ikusten ahal ditugun herriak gehitu behar dizkiegu, bai Alo eta Leirine (Irigarai, 1926) aldetik hegoalderantz eriditen ahal ditugun Ega Beheko bertze herriak, hala nola Karakarre, Andosilla eta San Adrian baita Arkuetatik (eta ez “Urantzia”, apika. Ikusi Irigoienaren *De Re Philologica Linguae Wasconiae* III, 143 o. eta Jimeno Jurio, 1994) Bianaraino hedatzen den eskualdea ere, bide nagusia eta Ega ibai artean gelditzen diren Elizagorria, Mendabia –Imaz eta Legarda aipagarriak–, Sesma delakoa –oroitu Almunza zelakoa–, Lodosa eta Sartaguda barne.

Aragoa ibai aldeko lurraldea ere, ezker aldea nagusiki, Herribeheratzat hartua izan da, Pardixerriko (Salaberri, 1989) mugetatik, Irunberritik Ledea, Oibar eta Zangotza aldea; baina, batik bat, Bardenareki (Irigarai, 1926) muga duten herriak, Aragoa Behean kokaturik daude: apika Kasedatik hasirik (Aiape, 1994), Zarkaztelu, Murelu Hautsi, Melida, Kara, Arrada, Kaparrotsu, Alesbes, etab.

Tafalla herriko biztanlegoaren ustez bere herria Mendialdea eta Herribehera arteko mugan kokatzen da, Herribeherako “atea” izanen zelarik. Orbaibarreko herri ttikietako biztanlegoaren iritzia, berriz, bertzelakoa zen, herri ttiki horietatik hegoalderantz Herribehera hasiren zelarik. Alde honetatik Nafarroako Artxibategi Orokorrean dauden XVIII. mendeko Orbaibarreko biztanleki loturik duten agiriak (epaiketak, funtsean) hagitz aipagarriak direla uste dugu, zeren eta urte horietan, eta Orbaibarreko biztanlego gehiena euskaldun elebakarra izaki, Herribehera abiatzen zirenean agiri aunitzetan *a la Tierra Baja* joanak zirela agerzen baitzaigu –Tafallan bizi ziren itzultzaile elebidunei esker, jakina–. Hau da, Herribehera, Herribeheiti, Beterrri, Mendialdea ez dena, eta ez Ebro edota ibai batzuen ertzean kokaturik dagoen lurraldea.

Tafalla herritik abiaturik Herriberri (edota Harriberri, apika, Irigoienaren ildotik, *De Re Philologica Linguae Wasconicae*, III, 148 o.), Beirri (Irigarai, 1926) eta inguru hartatik Arga eta Aragoa ibaia elkartzten diren arteko lurraldea.

Azkenik, Tuterria, bere ate irekiak diren Alhama, Queiles eta Ebro ibaieki, muga geografikorik gabeko ondoko eskualdeki historian zehar bizi izan diren harreman sendoak ahan-tzi ezinean (Aragoako Bortziri eta Tarazona aldea Moncayo delako mendipeko lurraldea dena eta Ergamendipeko herriak).

Laburbilduz, ia Nafarroa erdia era zabal batean harturik eta heren bat guttienez Lizarrierian, Tafallaldean eta Zangotzaldean zehaztaper batzuk eginez gero. Zer erranik ez Tuterriaren ondoko eta Ebroko ezkerreko lurraldeak kontuan izaki, Arabako bi ertzeak barne, Biasteri, Bastida,...

Nafarroako Mendialdea ez dena, hauxe dugu zilegi zaigun definizio bakarra, baina hau ere arront eztabaidagarria dela aitortu behar dugu (*Larreko*, II. Errepublikaren garaiko lanak; Aiape, 1994; Irigarai, 1993; Kanpion, zenbait prentsa artikulua eta Nafarroako Artxibategi Orokorrean diren sailkatu gabeko paperak, etab.), historian zehar zentzua aldatu delarik, ikuspuntu eta perspektiben irudia desitxuratuz (koko-herria kasu, Salaberri, 1989; Satrustegi, 1989). Erraiterako, egungo Tuterako biztanlegoarentzat Tafalla herria bertze mundu bat da, baina Iruñerriko sustrai sendoak dituztenen ustez Erreniegatik edota Artederretatik (Jimeno Jurio, 1989) hegoalderantz dena Herribehera da, aipaturiko Orbaibarra eta Tafalla delakoa barne kokatu arren. Edota sakanatarren iritzia Lizarrieriaren inguruan, ... Mapan Herribehera nagusitu dela emaiten du, Añamendiko magalean edo Gipuzkoa aldean bizi ez bazara, bederen. Eztabaida hor dago.

NAFARROAKO HERRIBEHERA ERROMATAR ALDIARI

1. Historiaren banaketa denborazko mugen bidez burutzeak ez omen du zentzu handirik (Berr, 1956). Gure kasuan, erraiterako, erromatarrek Nafarroako Herribeheran bizi zen balizko populua erromatar guttienez k.a. III. mendearen amaierarako nolabaiteko eragina zutela susmatzen ahal dugu, eragin hori zehaztu gabe (militarra, ekonomikoa, politikoa, etab.). Era berean, k.o. V. mendearen erdi aldean, oraindik, erromatar egituren eragin politiko-militarra, gizaekonomikoa edota gizakuturala aipagarriak direla uste dugu, mota guzietako egitura ofizialen desagarketa edo, bederen, ahultze erabakiorra noiz eta nola burutu zuten mugatu ezin dugun arren. Egituren ordezkatzeko horren garabidea, hori bai, denbora luzean burutu zutela dirudi, kontzeptu hauek guziaz erlatibizatuz, jakina.

Dena den, eta bere zentzua hagituz eztabaidagarria dela argitu ondoren, data eroso batzuk, bederen, eskaintzen ahal ditugu: k.a. II. mendearen hasiera eta k.o. V. mendearen bigarren erdi aldea. Lehendabiziko datari euskarraren bat eransteagatik, Marko Portzio Kato kontsularen ekintzak adierazgarriak direla uste dugu (k.a. 195). Bigarrenerako, berriz, 465. urtean jasorikoa (Silvanus) erranguratsua izaiten ahal zaigu. Bi datak, beti ere, bere testuinguruan ulertu behar ditugun adibideak bertzerik ez dira, adibide horien inguruan datu azpi-magarririk badagoela jakinda ere.

2. Zein zen, halere, erromatar aldiari, hots, k.a. II. mendearen hasieratik k.o. V. mendearen bigarren erdi aldea arte Nafarroako Herribeheran bizi zen populua? Galdera hau zuzena al zaigu? Ez omen dago, oraindik, honen inguruko ihardespene erabakiorrik. Gauza bat segurua da: k.a. I. mendearen erdi alderako (Kinto Sertorio k.a. 72. urtean hil ondoren, datu bat eskain dezagun) erromatar iturriek Nafarroako Herribeheran bizi zen populua baskoia zela jakinarazi digute. Hau da, aukeraturiko denborazko mugen arteko zazpi mende luze horietan, eremuko jabe gisa baskoi populua azaltzen zaigu, lehendabiziko menderako izan ezik. Hona hemen ahan-tzi ezin dugun arazo historikoa. Hain zuzen ere, zein zen k.a. I. mendearen erdi aldea arte Nafarroako Herribeheran bizi zen populua nagusia?

Alta, egun eztabaidak bi ihardespren du: baskoia edota zeltiberiarra, zelta ere aipatua izan den arren. Eztabaida hau uler dezagun arazo nagusienerikoa eremua da. Egungo Biana, Mendigorria, Tutera edota Zangotza inguruetakoko egoera bakarra edo anitza zen? Honen inguruan arlo ezberdinetako ikerlariak (historia, arkeologia, etnografia, etab.) gauza aunitz idatzi dute. Adibide batzuk eskaintzearen, egungo Biana alde berorien menpe zegoela aipatua izan da, funtsean eskualde horretako populu nagusia zeltiberiarra zela adierazteko (Labeaga 1976 –1973– eta 1992; Labeaga eta Untermann, 1994). Egungo Mendigorria aldeari dagokionez, berriz, hainbat egilek, arkeologiari esker jasoriko datu batzuen bidez hango populuak nolabaiteko eragin zeltiberiarra zuela aurkeztu dute –arrot zeltiberiarrak zirela adierazteko bidean, bertalde– (Mezquiriz, 1992), bertzelako iritzirik plazaratua izan den arren (Untermann, 1994), hots, azken egile honen ustez baskoiak ziren eta haien hizkuntza nagusia euskara zen –funtsean, Mitxelenaren esaldi ezagunaren ildotik: “ez ditzagun eltzeak eta hizkuntzak nahas”–. Egungo Tutererriaren egoera ere korapilotsua zaigu. Balizko eremu horretako hainbat tokitan zelta, indoeuroparra izendaturikoak –Kortes kasu, k.a. 850etik (Taracena eta Vázquez de Parga, 1951; Gil, 1952; Maluquer de Motes, 1958; Castiella, 1977)– edo zeltiberiarra deiturikoak –Fitero kasu, k.a. III. mendetik (Taracena eta Vázquez de Parga, 1946; Maluquer de Motes, 1965; Castiella, 1977)– baskoi populuaren balizko garrantzia guttitu omen dute, aipaturiko k.a. 72. urtea arte, bederen. Eta data horren ondoren “ager” deiturikoaren hegoekialdean arkeologiak eskainiriko aztarnen arabera “erromatarra” dena nagusitzen zaigu, iturri idatziek “baskoi” izena, bertzerik aipatzen ez diguten arren. Azkenik, Zangotza eskualdearen inguruko auziak ere aurrekoaren antza du: zeltak, indoeuroparrak, baskoiak, ... Dena den, hagitzez lehenago geratu omen zen baskoien menpe –k.a. 184 (Labeaga, 1987)–, datu honek Ebro aldeko lurraldeek mende horietan bertzelako garabiderik bizi zutela adierazten duelarik. Halere, k.a. I.-k.o. I. mendetako zeramika zeltiberiarra deiturikoa ere eriden omen dute inguruan (Ramos, 1992 –1989–), gaia korapilatuz.

Zeltiberiarra edota baskoia. Ez dugu zeltiberiarra ala baskoia idatzi. Zergatik? Gaia hobeki azal dezagun. Orain arte erakutsirikoaren arabera Nafarroako Herribehera erromatar aldiar arrot baskoia agertzen zaigu k.a. 72tik amaiera arte. Eta eremu horren erdia, guttienez, arrot baskoia ikerturiko epe historiko osoan, honen inguruko zalantzak, nagusiki, Zangotza inguruari zein Ebro aldeko lurraldeei omen dagozkielarik. Baina indusketek eta haien irakurketek bizi duten garapenaren bidez sorturiko arazo historikoa sakonagoa zaigu. Hain zuzen ere, erromatar aldia baino lehenagoko materialak, funtsean II. Burdin Aroko materialak aztertuz gero, ikerlariak eriden dituzten aztarnak sailkatzeko ezaugarri nagusiari izenik jartzeko unean, hots, indusketa horiei dagokien abagune kulturala izendatzeko, “zeltiberiar” erabili ohi dute. Adibideak nonahi, guzi-guziak. Hona hemen batzuk: Mendabia (Castiella, 1985, 1994), Faltzes (Mezquiriz, 1985), Kara (Mezquiriz, 1975; Castiella, 1977; Tabar eta Unzu, 1985), Arroitz (Castiella, 1986), Bargota (Castiella, 1986, 1994), Esprontzeta (Castiella, 1986), Iturgoien (Castiella, 1986), Larraga (Castiella, 1986), Lodosa (Castiella, 1986), Miliari (Castiella, 1986), Sesma (Castiella, 1986), Leartza (Monreal, 1986), Muru-Azterain (Castiella, 1977, 1988, 1992), Etxauri (Castiella, 1988), Biana (Labeaga, 1976, 1992; Labeaga eta Untermann, 1994; Castiella, 1977), Galar-Getze (Castiella, 1992), Zangotza (Ramos, 1992), Berbintzana (Armendáriz, 1994), Iruñea (Castiella, 1977; Mezquiriz, 1978), Deierrri-Ibiriku (Castiella, 1977), Argetas (Castiella, 1977), Balterra (Castiella, 1977), Fitero (Taracena eta Vázquez de Parga, 1946; Maluquer de Motes, 1965; Castiella, 1977), Artaxona (Maluquer de Motes, 1965).

Baina gibeledako zerrendak arazorik duela argi zaigu, hau da, zerrenda honetan Nafarroako Herribeherako tokiak ezezik, Nafarroako bertze zenbait toki ere azaltzen zaigu, hala nola Arroitz, Esprontzeta, Iturgoien, Miliari, Leartza, Muru-Azterain, Etxauri, Galar-Getze, Iruñea, Deierrri-Ibiriku eta Artaxona. Zer erran nahi digu honek? K.a. II. edota I. mendeko Nafarroa “zeltiberiarra” zen? Mendialdea ere eremu horren baitan? Ez al zen, berriz, baskoia?

Auzi hau bertze era batera azal dezagun: Zein da, abagune historiko horretan, indusketa bateko aztarnak baskoi populuari dagozkiela adierazteko irizpidea? Ba al dago edozein indusketetan agertzen ahal zaigun balizko materialik baskoia dela adierazteko aukerarik? Epe historiko horretako indusketa baten gainean ari garela jakinarazteko aztarna batzuei "zeltiberiar" izena emaiten badiegu, baskoi populua benetakoko egoera gizakulturala zein gizaekonomikoa nahasten ari garela uste dugu, hau da, funtsean, horrelakorik eginez gero baskoi populua balizko zeltiberiar munduaren zati bihurtzen baitzaigu. Honen inguruko adibide on bat eskain dezagun *Andelos* delako hirian eriditen ahal duguna da: baskoia, iberiarra, zeltiberiarra, erromatarra,... Erromatar aldiari iturrien arabera Mendialdeko mugetan dagoen Herribeheran kokatzen ahal dugun hiri hau baskoia zela argi dago. Halere, hainbat aztarna dela eta, iberiar zein zeltiberiar izenak ere aipatuak izan dira, bertze zenbait datu adierazgarri baztertuz, *Larrahi* kasu, Untermann egileak berak datu horren garrantzia berriro oinarritu zuen.

Hitz batez, k.a. 195-72 urteko epea aztertzeke unean ez dakigu zer den toki bat baskoia zela adierazi ahal izateko darabilten irizpidea. Erromatar aldiari iturriek balizko toki hura horrela izendatu zutelakotz? Edota, ildo hau arrotz oker dezagun, zein zen funtsezko ezberdintasuna Iruñea eta Numantzia hirien artean? Galdera hau gogorregia zaigu, jakina, baina Iruñea, berez, irakurri duguna irakurri, balizko zeltiberiar munduaren zatia zela irakur dezagun denbora laburra falta dugula dirudi.

Irizpide argirik falta dugu, zalantzarik gabe, eta gertakari honek gure lan guziaz baldintzatzen digula uste dugu, urte horietako Nafarroako eta Nafarroako Herribeherako benetakoko egoera gizakulturala lainoan geratzen zaigularik, hots, egun, historialarien ustez ez dago iharbespen erabakiorrik. K.a. 72. urtea arte Nafarroako Ebro ibaiaren ertzeak baskoia edota (eta ez *ala*) zeltiberiarrak ziren bere horretan utziren dugu.

Dena den, eta ikerketarako lagungarria den zerbait aipatzearen, ez dezagun datu bat ahanztu. Biana aldeko hiru tokietan azaltzen zaizkigun aztarnen arabera (*Cornava*, *Perizuelas* eta *Tidon* deituriko tokietan, hain zuzen) k.o. I.-II. mendeetatik XIII. mendea arte ez omen dago hausturarik, zeramika mota berak iraun omen zuen (Labeaga, 1976 -1973-). Zeltiberiarrak Nafarroako Erresuman, done Jakue bidearen ondoan? Ez, noski. Zeramika aztarna horiek bertzelako daturik eskaintzen digute. Lehen Ertaroiari dagozkion *Andelos* deituriko hiriko etxeek bezalaxe. Edota Zangotza aldean eriditen ahal duguna. Edota Fitero delakoan. Gauza bat da "zeltiberiar" edo "sigilata" deitzen dugun zeramika eriditea eta bertze gauza bat da toki horretan bizi zen populua baskoia, zeltiberiarra, edo erromatarra izatea. Eta bertze gauza bat da, jakina, populua horren funtzio komunikatiboa betetzen zuen hizkuntza nagusia zein zen.

3. Nafarroako Herribeheran bizi zen baskoi populua hizkuntza nagusia. Nafarroako Herribehera baskoi populua zela argi dago, eremu hartan erromatar aldiari zehar bertzelako populua batek nolabaiteko eraginik izatea frogatzeko dagoen balizko hipotesi historikoa delarik. Dena den, ondorengo galdera ezinbertzekoa zaigu: Zein zen, orduan, Nafarroako Herribeheran bizi zen baskoi populua hizkuntza nagusia, hau da, funtzio komunikatiboa betetzen zuena? Galdera hau ez da Nolanahikoa. Historialariek ez dute iharbespen erabakiorrik eta, gainera, komunikazio honen asmoa ez da auzi hori konpontzea. Guk erakutsi nahi duguna, oroi dezagun, erromatar aldiari zehar latinak Nafarroako Herribeheran bizi zen baskoi populua hizkuntza nagusiaren funtzio komunikatiboa ordezkatu ez zuela da, eta ez bertzerik. Hau da, hemen ez dugu zehaztu nahi eremu horretako hizkuntza nagusia zein zen, k.a. 195tik k.o. 465era balizko hizkuntza horren funtzio komunikatiboa latinak ez zuela ordezkatu baizik.

Historialariek, gai honen inguruan, hamaika hipotesi eskaini dute. Laburbil dezagun, hona hemen garrantzitsuenak:

a) Latinak Nafarroa osoan funtzio komunikatiboa eskuratu zuen. Hipotesi hau defendatzen dutenen artean nolabaiteko ñabardura egiten ahal dugu, hau da, batzuen ustez, agian, Nafarroako Mendialdean edota egungo Gipuzkoa aldean latinak ez zuen funtzio hori erdietsi, haran horietako biztanleek haien lehenagoko hizkuntzari eutsi ziotelarik.

b) Latinak Nafarroa gehienez funtzio komunikatiboa eskuratu zuen, hau da, erraiterako, Iruztun-Iruñea-Agoitz-Uskartz-Uskartz-Burgi tokiek osatzen duten balizko mugatik hegoalderantz latina nagusitu zen, eta muga horretatik iparralderantz eragin handia izan zuen.

d) Latinak "ager" deituriko lurraldean funtzio komunikatiboa eskuratu zuen, hau da, Nafarroako Herribehera osoan, guttienez. "Saltus" deituriko lurralde aldean, berriz, ez zuen hainbertze erdietsi, eragin handia izan zuen arren. Hipotesi hau defendatzen duten historialarien artean Iruñeko egoera gizakulturala eztabaidagarria da hagitz, aunitzen ustez hiri horretan ere latina nagusitu zelarik.

e) Latinak "ager" deituriko lurralde gehienez, Ebro aldean, batik bat, funtzio komunikatiboa eskuratu zuen. "Ager" deituriko lurraldeko hainbat eskualdetan, berriz, latinaren balizko nagusitasuna eztabaidagarria da, Iruñea hirian bezala. "Ager" deituriko eremu osoan eta Iruñean latinaren eragina nabarmena zen. "Saltus" deiturikoan, berriz, latinaren eragina tipia izan zenentz ez dute argi hipotesi hau defendatzen duten historialariek.

f) Latinak "ager" deituriko lurraldean eragin handia izan zuen, Ebro aldeko toki gutietan –hiri eta *villae* batzuetan– nagusitu zen arren. Mendialdean, berriz, bere eragina hagitz tipia izan zen.

g) Latinak eragin handia izan zuen –Herribeheran, batik bat–, inon nagusitu ez zen arren.

Erakutsiriko aukerak hagitz korapilotsuagoak izaiten ahal dira, jakina, baina ez dugu gaia gehiegi zaildu nahi. Bertzelako aukerarik ere badago, baita batzuen arteko konponketak, zalantzarik gabe. Gure asmoa, berriz, bertze bat da: Orain arte zabalduko hipotesien artean Nafarroa osoak latinez, eta latinez bakarrik, hitz egiten zuela irakurtzen ahal dugu. Baita arront aurkako iritzia ere, hau da, Nafarroan latina ez zen inon nagusitu, bere aldeko diglosia bizi zuen arren. Hitz batez, historialariek aukera guziaz aipatu dituzte auzia konpondu gabe eta horietako aukera aunitz ezin dugu batera jarri, hots, bat onartuz gero bertzea baztertu behar dugu. Arazoa hor dago.

Dena den, historialari gehienak garabide historikoa aztertzean bat datoz, antza. Hau da, erromatartze garabidea aztertzean uean bere baitako epeak ezberdinak dituzte. Ondorioak ezberdinak dira, jakina, eta aurreko hipotesiak horren isla dira. Baina historialariek erromatar aldia banatzeko uean nahikoa adostu dute erromatartze garabideak bizi izan zituen bultzadak eta krisialdiak edota behititzak:

a) K.a. II. mendetik k.o. II. mendea arte, edota zentzu handirik ez duen k.a. 195tik k.o. 161 arteko epea, data batzuk eskaini ditzagun. Epe honetan erromatartze garabideak bere indar handiena bizi omen zuen. Bere baitan eginiko banaketak, berriz, hamaika dira –Nafarroako Herribeheran k.a. 72. urtea edota k.o. II. mendea, erraiterako, aipagarriak dira–.

b) K.o. III. mendea –k.o. 161etik 284 edota 312 arte, gehiegi zehaztu gabe–. Erromatartze garabidearen krisialdi orokorra. Arkeologiak Nafarroako Herribeheran kokaturik zeuden lehenagoko eraikuntzetan txikizio handiak erakusten dizkigu.

d) K.o. IV. mendea –409. urtea arte–. Historialari gehienek banaketa hau onartzen duten arren, mende honetan gertaturikoaren garrantzia aztertzerakoan zenbait ikerketen bidez eskainiriko ondorioak ez datoz bat: erromatartze garabidearen bertze bultzada bat edota "III.

mendeko krisialdia” deiturikoaren jarraipena. Arkeologiak eskaintzen digunaren arabera, Nafarroako Herribeheran III. mendeko krisialdiaren txikizioak jaso ondoren IV. mendean berreraikuntza eta berrikuntza aunitz burutu zuten. Balizko bultzada horren irakurketa, berriz, anitza zaigu.

e) K.o. V. mendea –465. edota 472. urtea arte, erraiterako–. Krisialdi erabakiorra eta erromatartze garabidearen amaiera. Halere, amaiera hori ere eztabaidagarria zaigu: hizkuntza, erlijioa, egoera gizaekonomikoa, etab. Egitura ofizialen desagertaketa –mende luzeetan zehar, oroi dezagun– ez zuen dena irauli, baldintzatu baizik. Egitura ofizialen desagertaketa jasorikoaren isla da, eta ez bakarrik horren eragilea. Hau da, Nafarroako Herribeheran garabide historikoak hausturarik gabe jarraitu zuen, baita berrituriko botere guzueen aldetik eremu hura gizakulturalki zein gizaekonomikoki “erromatar” bihurtzeko ahaleginak ere.

Zein da gure iritzia? Latinak ez zuen Nafarroako Herribeheran bizi zen baskoi populua erromatartze nagusia ordezkatu, ez k.a. II. mendetik k.o. II. mendea arte aipatzen ahal dugun epean, ezta IV. edota V. mendeetan ere. Lehenagoko hizkuntzak bereari eutsi zion, latinak bere aldeko diglosia bizi zuen arren. Historialari gehienek bertzelako iritzirik dutela jakin badakigu. Halere, gure iritziak oinarri sendorik baduela azpimarratu nahi dugu, Nafarroako Herribehera erromatar inperioko lurralderik “erromatartuena” ez baitzen... Eta Nafarroako Herribeheran latinak funtzio komunikatiboa eskuratu zuela adieraz genezan inperioko tokirik erromatartuenerikoen artean kokatu, bertze gauzarik ezin gurek egin; zeren eta latinak, inperio osoan zehar, k.a. II. mendetik k.o. V. mendea arteko epean lehenagoko hizkuntzak ez baitzuten ordezkatu. Hau da gakoak.

4. Latinak, inperio osoan zehar, ez zituen lehenagoko hizkuntzak ordezkatu, bere aldeko diglosia bizi zuen arren. Ez zituen Galia aldean, Afrika aldean, Ekialdean, Danubio aldean ordezkatu. Hiri eta gune garrantzietan ez zituen ordezkatu. Orduan, nola sinesten ahal dugu Nafarroako Herribeheran azaltzen zaizkigun arlo politiko-militar, juridiko edota gizaekonomikoa aldetik garrantzi berezirik gabeko populazio gune tiki horietan –hiri garrantzitsurik ez, bederen– latinak baskoi populua lehenagoko hizkuntza ordezkatu zuela?

Kultura arloan gauza aunitz erran behar dugula uste dugu. Betidanik inperioan zehar, mendez-mende, latina hedatu zutela –gehienetan irakurri duguna “zela” da– jakinarazi digute historialariek. Hau da, inperioko hizkuntza ofizial nagusiak, latinak, gutti ezagunak ziren bertze hizkuntzak, erromatarrek hizkuntza haiei zegozkien herriak eta bere populua konkistatu ondoren, toki guzietan ordezkatu zituela plazaratu digute. Mendebaldean, beti ere, zeren eta ekialdean hizkuntza grekoareki ofizialtasuna banatu behar izan omen zuen praktikan, amaieran grekoa nagusi suertatu zelarik.

Mendebaldean, eta Nafarroako Herribehera inperioko mendebaldean kokaturik dago, latinak erromatarrek konkistaturiko populua hizkuntzak ordezkatu omen zituen. Honen garabidea luzea izan bazen ere, antza denez II. mendearen erdi aldean populua horien berezko hizkuntzak bazterturik zeuden –hots, ez hain garabide luzea soziolinguistikoki, alderantziz baizik–, hiri eta herri handietatik kanpo eta inperioko egiturek inposaturiko diglosia izugarria eramanpean.

Alta, III. mendean, inperioko egituren ahuleziarekin batera, hiltzorian omen zeuden populua horien berezko hizkuntzak eta kulturak “berrindartu ziren”, latinak hiri eta eremu militarretan eriden zuelarik babestoki bakarra. Hala ere, IV. mendetik aitzina, latinak, berriro ere, inperioko egituren balizko berrantolaketari esker bere eremua zabaltzen zuen. Garabide honetan, kristautasunaren hedapenak ere gero eta garrantzi handiagoa izan zuen, V. mendean inperioko egiturek desegin zituztenean mendebaldean Eliza ofiziala latinaren bultzatzaile nagusi bihurtu zutelarik.

Honaino, 476. urtea arte, betidanik irakurri dugun bertsioa, historia liburuetan eriditen ahal ditugun esaldi arruntenak, kultura arloa aipatzen denean, bederen. Eta bururatzen zaigun galdera hagitz sinplea da: hori al da Nafarroako Herribeheran jaso zena? Hau da, alde batetik, latinak II. menderako ordezkatu zuen han bizi zen baskoi populuaen hizkuntza, toki gehienetan, bederen. Lurralde hura "Ager" baitzen, eta ez "Saltus". III. mendean zehar, eta bakarrik "Saltus" deituriko lurraldetik hurbil bizi ziren Herribeherako baskoiek bere aintzinako hizkuntza eta kultura berreskuratu omen zuten, latinak zuen indarra ahuldu zutelarik, hainbat tokitan bertako biztanlegoak jasaten zuen ofiziala zen *bernis* kulturalak inperioko egituretatik kanpo ez baitzuen zentzurik. Hiri eta herri handietan, berriz, nagusi bihurturiko latina mantendu zen. Ondorengo mendeetan, bertzalde, lehenago aipaturiko inperioko egituren balizko berrantolaketa ere eta hainbat idazlek onartu duten kristautasunaren balizko hedapenareki Ebro aldeko lurraldeetan zehar, Herribeherako baskoi populuaen berezko hizkuntza desagertarazi zuten, mendez-mende, amaieran latinetik jaioriko Erdi Aroko erromantzea arront nagusitu arte. Arabiera, bertzalde, lehen aipatu dugun bertze *bernis* bat izan omen zen, ahulago gainera, arabierazko toki-izenik heldu ez zaigularik (Belasko, 1996).

Baina, horrela izan zen? Hori al da gure galdera soilak jasoko duen ihardespena? Latina, diglosia honetan erabat garaile izan zen? Edo, datu bat edota batzureki nagusi bihurtu zaigun hipotesi historiko baten aitzinean gaude? Hipotesi bat, eta ez errealitate historikoa, alegia. Azken adierazpen hau sostenga dezagun datu aunitz baitugu. Mendeetan zehar ezarritako balizko errealitate historikoa eztabaidagarri bihurtu dezagun adina datu, bederen. Eta honetarako 476tik berriro gibelerantz jo behar dugu. Erromatarrek buruturiko konkisten hasiera arte, guttienez; edo, errealistagoak izanik –ezin baitugu honen gaineko hamaika orrialde idatzi– I. eta II. mendeak arte, gero, poliki-poliki V. mendera itzul gaitezten.

Hasteko, grekoaren eremua aipagarria zaigu. II. mendea arte kristau izaiteko greko hizkuntza ezagutzea ezinbertzekoa omen zen (Aymard eta Auboyer, 1980 –1960–) eta horrek kristautasunak inperioko mendebaldean ordurarte erdietsiriko emaitza urriak azaltzen ahal dizkigu. Gainera, inperioko eskutitz ofizial gehienak grekoaren eremuko hirietara bidali zituzten, eremu hura aberatsena zelakotz (Millar, 1986 –1966–). Marko Aurelio enperadoreak berak grekoz idatzi zuen eta Severo Alexandro enperadorearen hizkuntza nagusia grekoa zen (Historia Augusta –1989–, 397 o.). Funtsean, latinak inperioko zortea eta garapena bizi izan zuen (Weber, 1981 –1896–; Dolç, 1975) eta grekoak bereari eutsi zion, baita mendebaldeko handiki eta aditu aunitzen artean ere.

Baina gai honen gaineko garrantzi handiko datu gehiagorik ere badago. Erraiterako, zein zen Marko Aurelio bizi eta mende bat beranduagoko egoera? Zein zen latinaren eta grekoaren hedapena III. mendeko krisialdiaren unean? Hona hemen hiri garrantzitsuetan eta jauntxoaren artean grekoa nagusi omen zen eremuko testigantza bat (Historia Augusta, 580 eta 585 oo.): Zenobia.

a) Zenobia, III. mendeko krisialdian urte batzuetako, epe bateko inperioko ekialde gehiengoko lurralde aberatsen jabea izan zenak, lurralde horietako une hartako hiri garrantzitsueneko handiki nagusia –Palmirakoa– izan zenak, benetako enperatriz eta enperadorea izan zuenak, ez zituen latina edo grekoa ongi menperatzen egiptoera ederki mintzatu arren, ezta bere semeek edota seme-alabek ere –testuan, semeak edo seme-alabak zituenentz ez baita argi gelditzen–. Ondorio zuzena: Bere populua ez zekien deus ere.

b) Bere gogoia agerian azaltzen zaigu, hots, berak ez zekiena –latina– (eta bera, ez achantzi, inperioko handiki garrantzitsuenetikoa zen, bere mugetan bizi arren), bere ondorengoek jakin zezaten grina edo guttienez gogoia. Baina bere ondorengoek grekoa ere ez zekiten, hau da, bere semeek edota seme-alabek zituen harremanetan ez zuen latina edo

grekoa erabiltzen nagusiki, bere populua hizkuntza baizik. Hizkuntza ofiziala zenak –latina– eta praktikan sasiofiziala zenak –hots, grekoa– sortzen zioten diglosia egoera agerian da, baina, hala ere, diglosia horrek ez zuen bere populua hizkuntza nagusia ezabatzen ezta handikien artean ere; hau da, diglosia bazegoen ere, diglosia maila ez zen bere populua eta beraren hizkuntzarako hagitz larria, egiptoeraren garrantzia eta funtzioa kontuan harturik grekoak asko jota “funtzio kulturala” delakoa eta latinak “funtzio internazionala” delakoa bete behar baitzieten (Txepetx, 1991).

Zenobia eta bere populua aberatsak ziren, merkatalgintzari esker –eta merkatalgintzaren garapenak balizko hizkuntza aniztasuna azal diezaguke (Vogt, 1968)– inperioko lurralde aberatsenetariko batean bizi zirelarik. Eta inperioko lurraldea zen, ekialdeko mugan kokaturik egon arren. Hala ere, Zenobiak amore eman zuenean, hau da, bere aurkako gerra galdu ondoren, Aureliano, Erromako enperadorearen nagusitasuna onartu zuenean elkarreki arazorik gabe mintzatu ahal izateko, negoziatu ahal izateko, itzultzaile baten laguntza premiazkoa izan zitzaizen nahitaez (Historia Augusta, 635 eta 637 oo.). Eta haien arteko harremanetarako greko hizkuntzaz baliatu ziren, ez latinez. Hots, hizkuntza ezberdintasuna handia zen hagitz, eta egungo edozein diglosia adibiderek in alderatuz gero aipaturiko hizkuntzen artean zegoen diglosia egoeraren eragina hagitz ahulagoa zela adierazi beharko dugu, inongo zalan-tzarik gabe –erraiterako, gaztelera edota frantsesak ingelesareki bizi duten diglosia egoera, praktikan, eguneroko bizitzan hagitz ariskutsuagoa zale Zenobiaren populua hizkuntzak latinareki bizi zuen diglosia egoera baino, lehen kasuetan politikoki herrialde ezberdinak izan arren–.

Baina inperioko mugetatik barnealdera abia gaitzen, grekoaren eta latinaren arteko diglosia egoeraren gaineko datu gehiago bil ditzagun. Hona hemen grekoaren aldeko adibide bat, bere berezko eremuan eta bere eragina jasotzen zuenean latina *bernis* kulturala, bertzerik ez zela, adierazten diguna: Greko hizkuntzaren eremuan lau *municipia* zeuden bakarrik, handikien artean izenak zabaldu arren –Tiberio Klaudio Hermokrates, kasu. Klaudio enperadorearen latinaren aldeko eragina hau guziaren atzean zegoen–. Halere, latinetik harturiko hitzak grekoz eta hebraieraz erabili zituzten. Dena den, Luziano Samosatakoak grekoa ikasi zuen, bere eremuan aramera nagusi zelarik. Dura hiriko erromatar aldi (165-256) aztarnetan, bertalde, grekoa azaltzen zaigu nagusiki, baita pahlavi, erta-iranera, safaitikoa, palmirakoa, siriakoa eta aramera. Hau da, egitura ofizialetatik kanpo grekoa zen funtzio kulturala betetzen zuen hizkuntza, baina bertze sei hizkuntza ere, guttienez, aipatu dugu, hots, hizkuntza aniztasun nabarmena, hiri horren ezaugarri garrantzitsuenak muga izaera eta merkatalgintza lanbide nagusi gisa direlarik. Hiri hartan latina *bernis* ere ez zela izan adierazten ahal dugu, hagitz urria zen guttiengo bat bazterrean utzirik. Hizkuntzaren batek *bernis* funtzioa bete bazuen hura grekoa izan zelakotz.

Baina datu aipagarriagorik ere badago, enperadorea tartean dagoelarik: Karakala enperadoreari Antiokia aldean latinez idatziriko auzi bat aurkeztu omen zioten, eztabaidak grekoz zeudalarik. Hau da, latinaren eta grekoaren arteko diglosia egoeraren eragina gizartearengan hagitz tipia zen, zeren eta enperadoreari aurkezturiko paperen artean ere grekoa eta ez latina eriditea ez baitzen arraroa. Hori, adibidez, ez zen gertatzen Nafarroako Erdi Aldean XVIII. mendean, zeren eta agiri guziak gaztelera hutsean agerian baitira, batzuetan euskaldun elebakarren arteko eztabaidak isladatzen dituzten arren. Itzultzailearen bat zegoela edota –guttitan, beti ere– mintzatzen ari zen laguna “bascongado” zela azaltzen zaiguna da; baina bere hitz guziak beti gaztelera agertzen zaizkigu, baten bat izan ezik.

Ikusi dugunez, hagitz garrantzitsuak ziren agirien artean ere –enperadorearen III. mendearen hasieran, hots, erromatartze garabideak bere bultzada handiena (k.o. I. eta II. mendeak) jaso eta gero– diglosia ahula zen. Baina hori ez da dena. Latina ez zegoen tokietan eta,

bederen, hain garrantzi handikoa ez ziren agirien artean, grekoa ere ez baitzen hizkuntza nagusia idazterakoan: morroi baten salmenta Edesan 243. urtean, siriakoz dago eta bi sinadura grekoz (Historia Augusta, 197 o.) edota Gregorio Taumaturgoaren adibidea –grekoa ikasi zuen eta latin pixkat, arront ezezaguna izan ez zekion– (Historia Augusta, 198 o.). Latina, *ber-niz* kultural eskasa handikientzat, orokorrean deus ez bere populuentzat, ezta grekoa ere.

Alta, kasu batzuetan latinak ezezik –edota latina ez zegoen tokietan– grekoak ere bere diglosia kulturala ez baitzuen nagusiarazten (Historia Augusta, 207 o.): –Tomos delako hirian, Itsaso Beltzean, I. mendearen hasieran– la ez zuten grekoz hitz egiten kolonia zahar hartan, eta hitz eginez gero, getikoa omen zirudien. Ovidiok zionaren arabera, han getikoa eta sarmatikoa ikasi zuen, baita getikoz idatzi ere. Hau irakurririkoan, hainbat tokitan grekoaren aldeko diglosia beharrean, grekoaren hitzunen aurkako itotze garabideak sortzen zituztela azpimarratzen ahal dugu, hots, nahiz eta grekoa “hizkuntza kulturala” izan, biztanlegoaren arabera merkatalgintzako gune garrantzitsuetan ere atzera jotzen zuela argi dago, bere funtzio komunikatiboa ere galerazi arte, hau da, hiri batean hizkuntza bera ere desagertarazi arte, bere antzinako hitzunen haien artean komunikatu ahal izateko ere –edozein hizkuntzak betetzen duen funtzio oinarrizkoena, baxuena– bertze hizkuntzarik erabiltzen baitzuten. Ildo berean, sortzen ahal zaigun zalantza bat garrantzi handikoa dela adierazten ahal dugu: Tomos delako hiri hartan greko idatzia ez ote zegoen mintzatua baino biziago.

Diglosia egoeren, handikien, populuen eta hizkuntza aldaketen inguruko zalantzak areagotzeko adibide gehiago plazaratzen ahal dugu. Trazia probintzian, erraiterako, hots, greko hizkuntzaren eragina nabarmena zen Europako eta ez hain mugako lurralde batean. Alde batetik, Trazia konkistaturikoan, k.o. 46. urtea ondoren (Millar, 1986 –1966–), handikien izenek erromatartze garabidea nabarmenki isladatzen omen dute. Erromatartze garabideko 150 urte eta gero Trazia probintziako egoera zein zen ikertzerakoan, berriz, emaitza aurkakoa da, hagitzez erromatar izen guttiago azaltzen zaigularik. Hau da, Filipopolistik Adrianopoliserako bidean kokaturik zegoen eskualde horretan, teoriarik nahikoa eremu erromatartua zen horretan ez da aldaketa handirik sumatzen. Eta datu hau izenei dagokie, hots, aldakorrenetarikoa den gauza, diglosia agerian bai baina honek Trazia probintzian bizi zen populua berezko hizkuntzaren egoeran aldaketarik adierazi nahi ez duelarik. Latinaren eta grekoaren egoera Trazia probintzian zein zen argi dagoela uste dugu: *ber-niz* hutsean gelditu zelakoan gaude, latina batik bat. Maximino enperadorea bera adibide garbia da (Historia Augusta, 438 o.).

Erabili dugun iturria, *Historia Augusta*, jakina denez, hainbat pasadizotan zalantzagarrira omen da, historialariek kritika zorrotzak egin dizkiotelarik. Dena den, bere testuan agertzen zaizkigun hizkuntzen eta kulturaren arloko aipamenen inguruko balizko arazoak ez ditugu haintzakotzat hartzen, zeren eta testuaren egileen asmoa norbait kritikatzeko bazen, balizko irakurleek ulertzen eta onartzen zituzten argudioak erabili behar zituztela uste baitugu, hau da, erraite baterako, lehenagoko pasadizoan Maximiano enperadorearen balizko trakestasuna/trakeskeria eta bere jatorri “barbaroa” testuaren egileak agerian utzi nahi duela emaiten du, baina, nolabait ere, balizko irakurleek izan behar zuten Trazia probintziako populu arruntaren gaineko irudiak horrelakoxea izan behar zuten, hots, berezko hizkuntza duena eta grekoa edo latina, orokorrean, ongi mintzatzen ez dakiena. Eta are gehiago, alta, testua IV. mendearen amaieran idatzi zuten –historialariak ez dira ados jarri oraindik, Konstantino I.a eta Teodosio I.a enperadoreen artean kokatzen dutelarik; azken honen inguruan, batik bat–, IV. mendearen amaierako errealtatearen islada ere, apika, ez ote garen erdiesten ari geure buruari galdetzen ahal diogularik. Azken kasu honetan erdietsiriko datuak garrantzi handiagokoak izanen liratekela uste dugu.

Maximiano enperadorearen gaineko informazioa biribil dezagun, hona hemen bizi zuen diglosia egoeraren bertze berri bat (Historia Augusta, 444-445 oo.): Antzoki batean, pasadizo

guziak ordezkatu. Grekoaren eremua hor dago, berezkoa zein bere eraginpean zegoena. Eta grekoaren eraginpean zegoen eremua ere aunitz erlatibizatu behar dugu, *berniz* kulturala, bertzerik ez zela onartuz. Baina latinaren eraginpean zegoen mendebaldeko eremua ere –inperioko lurralde guzietatik latinaren aldeko diglosia pairatzen bazuten ere, mendebaldean grekoak latinari ekialdean suposatzen zion oztopoa ez zela gauza bera argi dagoela erraita jakina da– erlatibizatu behar dugu, zeren eta bere baitan bizi ziren populuek ere bere hizkuntzei eutsi omen baitzieten. Eta hainbat historialarik jakinarazi digute errealtate hau (Mazzarino, 1961, kasu): Zeltera –Britainia, V. mendea; Asia Txikia, IV. mendea; Lyon, 202; Treberis, V. mendea–, Galia –zeltera, euskara– Hispaniae –Rostovtzeff, 1981 -1926–: biztanlego gehiena erromatartu gabe zegoela dio; euskara–, Britainia –inperioko probintzi honek ez zuen idazlerik eman–, Germania, Trazia, Armenia, hebraiera, Panonia, Afrika –V. mendea; berberera, libiera–, Siria –Antioikian, V. mendea; siriakoa, aramera, arabiera, etab.–, Egipto –V. mendea–, etab. Honek egoera berri baten aitzinean uzten gaitu. Ez da bakarrik grekoaren eta latinaren arteko diglosia arazoa. Badago datu gehiago. Latinaren eraginak mendebaldean V. mende arte ikerketa sakona eskatzen du, zeren eta agiri ofizialetan eta inskripzioetan agerturikoak populuen berezko hizkuntzen desagerketa ez baitu isladatzen.

Hau da, frankotan idatzirikoaren aurka, latinak ez zituen erromatarrek konkistaturiko populuen hizkuntzak ordezkatu. Kasu aunitzetan, bere eraginpean sorturiko *berniz* kulturala, bertzerik ez zen izan. Eta adierazpen hau funtsezkoa zaigu, zeren eta populu batek duen hizkuntza nagusia bere ezaugarri gizakulturalaren garrantzitsuena baita. Sortzen zaigun galdera ezaguna da: Nafarroako Herribeheran bizi zen baskoi populuen hizkuntza nagusirako ere latinaren eragin kulturala *berniza*, bertzerik ez al zen izan? Ezin dugu ihardetsi, datu gehiago behar dugularik.

Inperio osoko egoera gizakulturala da ezezaguna zaiguna, nola ausartu, orduan, Nafarroako Herribeherakoa azaltzen saiatzea? Zein zen baskoi populuen egoera gizakulturala Mendialdea ez zen lurraldeetan? Hor dago gure galdera.

Baina ez dezagun amai oraindik, inperioko lurraldeen baitan bizi ziren populuen egoera kulturalaren gaineko informazio gehiago eskuratzeko, egoera hobeki ulertzeko, bertze datu batzuk bil ditzagun aitzin. Trazian bizi zen populuen egoera gizakulturala, erraiterako, aipatu dugu jadanik. Danubio aldean edota Kartago eta Leptis Magna aldean bizi ziren bertze populuen egoera zein zen ikus dezagun, hasi dugun irudia biribil dezagun.

Danubio aldean, erraiterako, k.o. I.-II. mendeetako latinaren aldeko diglosia argi zegoen –izenak eta testuak latinez, greko gutti, populuen berezko hizkuntza zenbait izenetan bakarrik–. Hala ere, Septimio Severo (193-211) enperadore zenak Danubio aldean bizi ziren populuen gainean arrot interesgarria zaigun pasadizo bat eskaintzen digu, III. mendeko krisialdia baino lehenagoko –193koa, hain zuzen– egoera gizakulturala zein zen jakin dezagun: Hango soldaduen hizkuntza ez zen latina (Dion Kasio). Hau da, Danubio aldean ere mende hauetan zehar –I. eta II. mendeen artean, hain zuzen– erromatarrek inposaturiko diglosia kulturalak *berniz* ahul bat erdietsi zuela emaiten du, hango populuek haien hizkuntzari eta egoera gizakulturalari eutsi zitelarik (Petit, 1976 –1969–: Egile honek Galia lurraldeetan antzekoa jazo zela dio. Eta bertze egileen arabera balizko aldaketa hau inperio osoan zehar hedatzen ahal dugu: Hispaniae, Afrika, Frigia, Edesa, Egipto, Siria, etab.–).

Baina Afrika aldera abia gaitezen, han hagitz garrantzitsua zaigun informazioa eriden baitugu. Mauritania, Kartago aldea, Leptis Magna ingurua, kontuan harturen dugun eremua izanen da, zeren eta lehenago Zirene eta Egipto lurraldeetako populuek grekoaren aldeko diglosia –latinarena ere bai, jakina– jasaten zuen eremuan kokatu baititugu. Hau da, batik batik latinaren aldeko diglosiaren menpean bizi ziren Afrikako lurraldeetako populuek kontuan harturen ditugu.

Zein zen Afrikako lurralde horien egoera gizakulturala? Nolakoa zen hango populuek pairatzen zuten latinaren aldeko diglosia? Hirietan, handikien artean, populu osoan,... Nolakoa izan zen latinaren hedapena? Datu interesgarriak eriden ditugu.

Hasteko, done Austinen arabera V. mendean, mendebaldean inperioko egiturak abiadura bizian desegiten ari zirenean, Hipona bezalako hiri garrantzitsu baten inguruan, eta bere baitan, gehitzen ahal dugu zalantzarik gabe, populua hizkuntza nagusia ez zen latina, latina heldu baino lehen berezkoa zutena baizik. Berritoki ere ezarritoki latinaren aldeko diglosiararen ahulezia eta erromatartze garabidearen emaitzak agerian azaldu behar ditugu: K.a. II. menderako aipaturiko Afrikako lurralde gehienak erromatarren menpe zeuden, seiehun urte igaro ondoren latina *berniz* kulturala bertzerik ez zutelarik bihurtu. Hagitz adierazgarria: Erromatar itxurazko hiriak eta mota guzietako eraikuntzak, bideak, koartelak, merkatalgintza, erromatarrek inposaturiko lur banaketa –iturrien arabera lurralde erdia sei eskuetan zegoen–, Erroma hiriko kontsumorako garrantzi handikoak ziren garia eta olio ekoizte lanak, eskolak, agiriak, inskripzioak, kristautasunaren hedapena,... Baina latinak, oraindik ere, hagitz erromatartuak azaltzen zaizkigun lurralde horietako populuen hizkuntza nagusia ordezkatu gabe. Hots, inperioko lurralde guzietan eriditen ari garen egoera bera. *Berniza*, bertzerik ez. Mendebaldean inperioko egiturak desagertzen ari zirenean. Bandaloeek erromatarren boterea ordezkatu zutenean Afrikako lurralde horietan bizi ziren populuen hizkuntza/k nagusia/k erromatarrek lurralde horiek konkistatu aitzinekoak ziren, populu horien berezkoak ziren. Eta bandaloei berdin jarraitu zuten, arabiera hizkuntzaren aldeko diglosia indartsuareki egun arte hainbat tokitan –berbereak kasu–.

Baina informazio gehiago ere badago: Afrikako azken inskripzio elebiduna 92. urtekoa da, Leptis Magna hirian. Agiriei esker –Done Austin kasu– hango berezko hizkuntza bizirik zegoela badakigu, eta are gehiago, hiri garrantzitsuenetarik baten lurraldean ere hizkuntza nagusia zela –eta Hipona ez dago Leptis Magna hiritik batere hurbil, tokitan dago!–. Hala ere, hirurehun urte baino gehiagoz omen zeraman idazteko erabili gabe. Baina inguruko hizkuntza nagusia zen. Eta hizkuntza, oroi dezagun, populu baten kulturaren ezaugarri nagusia da, bizi duen eguneroko kulturaren antolatzaile nagusia. Egoera honek baskoi populua egoera gizakulturala ekartzen digu gogora, Lergako inskripzioa, erraiterako. Inskripzio horretan izen euskaldun batzuk agertzen zaizkigu eta toki horretan euskara XIX. mendean zehar desagertarazi zuten, Bonaparte printzeak bere eskutitzetan Nafarroako inguru hura, *Bizkaia*, aipatzen digularik. Inskripzio hura agertu baino lehen, 1950. hamarkadaren amaiera aldean, inguru aront erromatartutzat jotzen zuten historialariek –geroago aront euskalduna, hainbat agiritan elebakarra azaltzen zaigun arren–. Egun, inskripzioari esker egoera bertzelakoa zela badakigu. Arkeologiari esker, alegia. Eta ez ziren zeltiberiarak, jakina. Baina Nafarroako Erdi Aldean kokaturik dagoenez, Herribeherako egoera gizakulturala aront erromatartutzat jotzen dute. Lergatik, Indutsi ibaiko ingurutik jeitsiz gero –"Indutsi", erraiterako, Bizkaiko Dima ondotik igarotzen den ibaiaren edota errekaaren izen bera dela oroi dezagun–, hamar kilometro eskas igaro ondoren, Aragoa ibaia zeharkatu eta Kasada herrira heltzen ahal dugu, bertan toki izen euskaldunak ez dagoelarik, ez egun ezta inongo agiritan ere, eta mila urteko agiriak baditugu. Lergan, duela mende bat baino gehiago euskara entzuten ahal zen, mende bat lehenago herri horretan euskaldun elebakar franko egonen zelarik. Hamar kilometro ekialderantz ez dago euskal arrastorik historia osoan. Aipaturiko Afrikako lurraldeetan ez dago nagusia zen hizkuntzaren arrastorik II., III., edota IV. mendeetan zehar. Hizkuntza hori/etan deus ere idatzirik. Baina erromatarrek konkista burutu aitzin han bizi zen populua hizkuntza nagusiak bereari eutsi zion, V. mendean bere nagusitasuna eta latinaren aldeko diglosiak soilik erdietsirik *berniz* agertzen zaigularik. Zilegi zaigu, apika, Nafarroako Herribeheran bizi zen baskoi populua egoera gizakulturalareki alderaketaren bat egitea, baina oraindik ez zaigu hori egiteko unea heldu.

Alta, Afrikan sorturiko diglosia ez zen hagitz indartsua izan. Hori dela eta, populuen hizkuntza nagusiak mantendu ziren, era zabal batean gainera eta ez bakarrik bazterretan, hainbat historialarik proposatu duten moduan (De Martino, 1985, kasu).

Hau guziaren adibide garbia ezaguna zaigun enperadore bateki eriditen ahal dugu, hau da, Septimio Severo enperadoreareki (193-211). Afrikarra zen, handiki bat, eta bere agintea III. mendeko krisialdiaren hasieran kokatu dute hainbat historialariek. Honek erran nahi du hamaika aldiz aipatua izan den I. eta II. mendetako erromatartze garabide luzearen amaieran agindu zuela, hots, Afrikan latinaren alde ezarririko diglosia egoerak bere bultzadaren tarte handiena igaro ondoren, hiru mende luze jadanik erromatarren menpean, hain zuzen. Historialari aintzen ustez, Afrikan bizi ziren populuen berezko hizkuntza nagusiak bazterturik zeuden, haien aurkako diglosia indartsuegia zelarik. Hona hemen, berriz, enperadore honen gaineko aipamen bat: Ttikitan, gaztetan, ez zekien latinez, eta beti nabaritu omen zitzaion nongoa zen. Ondorio zuzena, 146. urtean Leptis Magna hirian jaioriko enperadore honen ama-hizkuntza ez zen latina izan, eta, gibelago ikusi dugunez, hiri hartako latin hutsean idatzirik ez zegoen azken inskripzioa 92koa zen, elebiduna zelarik. Baina bere ama-hizkuntza ez zen latina izan. Hiri hartako handikien artean inperioak izan zuen Afrikan jaioriko lehen enperadoreak ez zekien, jaiotzez, Erromako hizkuntza. Latina bere bigarren edota hirugarren hizkuntza, izan zen, erraiterako. Eta latina inperioko ezaugarri kultural nagusia zen. Antonino Pio enperadorearen garaian jaioriko Leptis Magna hiriko handiki baten etxeko hizkuntza ez zen latina. Datu hau izugarria da, zeren eta II. mendearen erdi aldean, balizko erromatartze garabidea bere une indartsuenerikoan omen zegoenean, inperioko erdi aldeko probintzi batean, Mediterraneo itsasoan kokaturik zegoen kai batean, probintzia horren hiriburuan, handiki baten etxean latinez ez baitzen mintzaten. Zer erranik ez hiri osoan eta hiritik kanpo gelditzen zen probintzian. Bertze datu bat, hiri hura ez zegoen greko hizkuntzaren balizko eremuan, ezta arabieraren, arameraren, egiptoeraren, edota hebraieraren, funtsean merkatalgintzako hizkuntzen eremuetan ere,... Balizko latinaren eremuan baizik. Tripolitania probintzia zen, inperioko banaketetan beti bere mendebaldean kokatua, V. mendean banda-loen menpe gelditu zelarik.

Nola neurtzen ahal dugu hiri hartako hizkuntzen arteko diglosia egoera? Latinaren aldeko nolabaiteko diglosia bazegoela argi dago, inskripzioak kasu, baina hizkuntza funtzioen aldetik ez zen inolaz ere hizkuntza nagusia, hagitz *berniz* fina, hagitz *berniz* ahula baizik. Berrit ere latinaren hedapena aront kolokan azaltzen zaigularik, nola sinestu, orduan, hainbertze historialarien ustez, II. mendearen erdi alderako Nafarroako Herribeheran edota bakarrik Ebro ibaiaren eremu guzian latina hizkuntza nagusia ezezik komunikatiboa edota bakarra ere zela? Orain arte ikusi dugunaren arabera, inperio osoaren eremu bakar batean, Mendialdea ez zen baskoi populuen eremuan latinak han bizi zen populuen berezko hizkuntza nagusia ordezkatu zuen? Eta, hain zuzen, duela mende gutti arte Mendialde horretan bizi zen populuen gehiengoaren hizkuntza bakarra euskara izaki, nola ulertu, Lizarrerrian, erraiterako, duela mende guttiko euskal elebakartasun hura, guttienez, hagitz ezagunak eta argitaraturik dauden agiri batzuen arabera, Ebrotik hamabortz kilometrorra egoitea? Hispaniae, Galiae, Italia,... Inperioko mugen baitan kokaturik zeuden probintzi hauetan, egungo hizkuntza nagusiak latinetik datoz, baina inperioaren garaian latinaren aldeko diglosia izaki, latina ez zen, oro har, funtzio komunikatiboa, funtzio nagusia betetzen zuen hizkuntza. Hala ere, egun, probintzi horietan bizi ziren populuen berezko hizkuntzak hilik daude, edo ia -bretoiera kasu-. Eta Mendialdean bizi zen baskoi populuen hizkuntza nagusia, euskara berriz, bizirik. Nola onartu, orduan, mende horietan latina Mendialdean bizi ez zen baskoi populuen hizkuntza nagusia ezezik, haien hizkuntza bakarra ere izaitea? Ez dugu uste honelako argudiorik egia izaiten ahal denik, zeren eta erromatartze garabideak inperioko lurralde bakar batean bizi zen populu baten berezko hizkuntza nagusia ordezkatzea erdietsi

bazuen, lurralde hura Nafarroako Herribehera izaitea mahai gainean eskaintzen ahal ditugun aukeren artean azkena baita. Euskara, baskoi populua erromatar nagusia zena bizi baita. Eta hauxe da edozein aurkako hipotesiren oztopo nagusia: Euskara hemen dago.

Gainera, datu gehiago badago: Leptis Magnan, 146. urtean jaieriko Septimio Severo enperadorearen hirian bertan, k.o. I. mendearen amaieran handikiek erromatar izenak aukatzen zituzten, lehenagokoak baztertu. Hau da, inskripzioetan bertako hizkuntzak desagertarazten zituzten une berberetan. Zilegi zaigu bi gertakari hauek harremanetan jartzea. Baina bertze ondorio zuzena ere ateratzen ahal dugu: handikiek erromatar izena hartu bazuten ere, mende erdia eta gero handikiek ez zuten latina erabiltzen oraindik, hots, latinez idatzirik dagoen inskripzio batek ezin digu pentsarazi egoera gizakulturala latinarena dela, ezta inskripzio guztiak latinez idatzirik daudenean ere. Gauza bat pentsatzea zilegi zaigu, eta bat bakarrik: Latinaren aldeko diglosia egoera bazegoen, baina latinak ez zuen inongo hizkuntzarik ordezkatu. Latinak prestigioa zuen gizartean, jakina, zeren eta handikiek ezagutzen zuten haien berezko ama-hizkuntza baztertu baitzuten bere izenak idazteko garaian, Erromako hizkuntza ofiziala erabiliz. Idatziriko izenak latinez zeuden, baina haien artean erabiltzen zituzten izenak zeintzuk ziren ez dakigula gaineratu behar dugu, halakorik gertatzea diglosiaren ezaugarri arrunta baita –euskara kasu–.

Hizkuntzaren egoera korapilotsu honen inguruko datu aunitz aipatzen ahal genezake, honako hau, erraierako II. mendea, Kartagoko lagun aberats baten gaineko aipamena: Hain "alferra" zen ezen, latina bazterturik, hango populua erromatar hizkuntza, bertzerik ez baitzuen erabiltzen. Latina, bere alde ezarriko hiru mende luzeko diglosiari esker handikien artean tokia irabazten ari zen inperioko hizkuntza ofizial bakarra, ez zen Kartagoko, ikertzen ari garen Afrikako eremuan kokaturik zegoen hiriburuko handikien hizkuntza nagusia. Eta, hala ere III. mendean senadore franko, zortziatik bat, apika, Afrikakoa zen. Eta, ez ahantzi, Kartago bera, Leptis Magna bera, izen handiko Tingad hura, eta Afrikako eremu honetan bertze 33 hiri II. mendearen amaiera aitzin erromatarrek sorturiko koloniak ziren. Kolonia aunitz: Hispaniae lurraldeetan hamazazpi inguru, Galiae lurraldeetan hamar inguru eta denak hegoaldean, Zirenen edo Egipto bezalako probintzietan bat ez. Eta, hala ere, datuak ikusirik ezta handikien artean ere, latina ez zen funtzio komunikatiboa betetzen zuen hizkuntza. Erromatartze garabidea erlatibizatu behar dugula uste dugu, zeren eta, erraierako, Nafarroako Herribehera osoan, baskoi populua erromatar eremu osoan koloniarik ez baitzegoen, hots, erromatartze garabideak Afrikan baino higitze laguntza tikiagoa jaso zuen. Nola ulertu, orduan, hainbat historialarik azpimarratu duten baskoien "ager" delakoaren erromatartzearen erabateko nagusitasuna eta lehenagoko hizkuntza/en balizko ordezkapena?. Kartagon bertan burutu ez zuten hizkuntza ordezkapena Mendialdean bizi ez zen baskoi populua eremuan jazo zen? Honelako argudioak sinesgarritasun handirik ez duela erraiten badugu, ez dugu uste hipotesi berriren bat mahaigaineratzen ari garenik, zabalduriko teoria baten –edota honi "Nafarroako Herribeherari dagokion erromatar aldiako historia ofiziala" deitu nahi badiogu, berdin dio– ezintasuna baizik.

Baina, hau guzia ikusirik ere, baten batek hagitze datu guttireki bertze teoria bat sortzen ari ote garen galde liezaiok bere buruari. Eta, zoritxarrez, historiaren kalterako horrela liteke, baina datu gehiago, hagitze datu gehiago dagoela azpimarratu behar dugu. Hona hemen, bertzenaz, Septimio Severo enperadoreari dagokion bertze aipamen bat, arras adierazgarria dena (Historia Augusta, 242 o.): Bere arrebak Erroman bisitatu omen zuen –bere ilobareki- eta ia ez zekien deus latinez. Egoera honek, Erroman, lotsa sortzen omen zion enperadoreari eta opariren bat eman ondoren Afrikara bidali zuen. Lehen aipatu dugunez, hainbat historialariren ustez iturri honetan aunitz gauza eztabaidagarri omen dagoen arren, ez dugu uste lerroaldea gezurra denik. Gure ustetan, berriz, iturri honen balizko irakurleen artean honelako

argudioek III. eta IV. mendeetan sinesgarritasunik zutela da. Eta ondorioak ez dira hala nola-koak: enperadorearen arrebak ez zekien latinez, hots, haien artean funtzio komunikatiboa betetzen zuen hizkuntza ez zen latina. II. mendearen erdi aldean inperioko mendebaldean jaioriko handiki, militar garrantzitsua eta, amaieran, ia hogeitaz enperadorea izan zen personaia baten senitarteek ez zekiten latinez, haieki mintzatzeko Erromako enperadoreak berak latina ez zen bere ama-hizkuntza erabili behar zuelarik. Lotsa senditzen zuen ala ez bazter batean utz dezagun. Pasadizoan eriditen ahal dugun balizko gezurra izaiten ahal baita, edota historikoki hizkuntzen artean arrunta den diglosiaren seinale, berdin dio. Azpimagarria dena isladatzen zaigun latinak betetzen ez zuen funtzio komunikatiboa baita, zeren eta funtzio komunikatibo hori latina ez bertze hizkuntzek betetzen baitzuten, baita inperioko mendebaldean jaioriko enperadore baten senitarteeki ere. Funtsean, historian zehar oinarritzko diglosia egoera isladatzen ari zaigu: Hizkuntza ofiziala arrotza den eta komunikatiboki elebakarra den eremu batetik, etorkizunean "personaia" bihurturen zen hizkuntza ofizialaren hiriburura joaniko lagun baten bizitza. Eta, jakina, joaniko lagun hori, "personaia" denean, bere herritik laguntza eske, diru eske, joaten zaizkio. Baina bere jaioterria ez zen mendialdean kokaturiko bazterra, itsasoko merkatalgintzareki loturiko probintzi bateko hiriburua, erromatar kolonia baizik. Hau da, bere diglosia egoera ez zen egun Malerrekako baserri batetik mugitu ez den aitona batek Iruñearekiko duena; Donostia euskaldun elebakarra izaki, Madrilera unibertsitate batean ikasi ondoren Espainiako lehendakaria izatera heldu den balizko donostiar baten egoera baizik... Eta bat-batean bere arreba euskaldun elebakarra Madrilera agertzen zaio, lehendakari donostiarrak ezagutzen ez duen bere ilobareki eta guzi, laguntza eske, bere gobernuko kontseilari guzien aitzinean lehendakaria gorritzen delarik. Balizko Donostia hartan diglosia egoera zein zen pentsatzen ahal dugu. Era berean, Leptis Magna, probintzia bateko hiriburu-kolonia-kai hura horrelako egoera batean bazegoen Nafarroako Herribeherako herrixketako biztanleen latinaren erabilpena zein zen pentsatzen ahal dugu.

Ez dugu uste gai hau gehiago luzatu behar dugunik. Enperadore honen gaineko frogak hemen daude, lehenago greko hizkuntza, zeltera hizkuntza eta bertze hizkuntzen balizko eremu-eki gertatu zaigun moduan: latinaren aldeko diglosia bazegoela argi dago, ez, berriz, inolako hizkuntzen ordezkapenik. Nafarroako Herribeheran hizkuntza ordezkapenik burutu zutela ezin da frogatu, aurkako teoriak, berriz, oinarri sendoa duelarik.

Eta eskainiren dugun azken datuak balizko zalantzak ezabaturen dituelakoan gaude (Wells, 1986 -1984-): Ponpeian, k.o. 79. urtean, oraindik, etxeetako hormetan oskoeraz idazten zuten. Zein zen arront ezaguna den Italia erdi aldean kokaturik zegoen Ponpeia hiriko, Campania eskualde aberatseko erromatar handiek atsedean hartzeko aukeraturiko kolonia horretako hizkuntza nagusia? Anatema, galdera hau aipaezina baita: latina eta kito. Baina Italiako hiri garrantzitsu horretan I. mendearen amaieran biztanlegoaren zati handi baten hizkuntza nagusia ez zen latina, bistan da, eta gainera batzuek latina ez zen bertze hizkuntza hura idazten eta, noski, irakurtzen bazekiten. Galdera hori ez da aipaezina. Izan ere, Italiako hizkuntza egoera erlatibizatu beharra dugu, eta horreki loturik bere egoera gizakulturala. Italian ere, ez bakarrik probintzietan edota probintzi batzuetako mendialde bazterretan. Hala ere, eta urte horietan, historialari aunitzek baskoi populuaren deituriko "ager" delakoan latinez bizi zirela azpimarratzeko lerroalde franko idatzi dute. Hau da, Arkuetan, Mendigorrian, Larragan, Zarkaztelun, Zentronikon, edota *Andelosen*, *Caran*,... Latinez bizi omen ziren. Ponpeian hizkuntza bat baino gehiagoren erabilpena frogaturik dago. Inperio osoan zehar zer erranik ez, latinaren aldeko diglosia bizi arren. Eta Nafarroako Herribeheran? Inperioko txoririk erromatartuena al zen? Ez. Hori ere frogaturik dago. Zerbait izaitekotan, aitor dezagun, bazterrean gelditzen zen populu baten aitzinean gaude: ez merkatalgintzarik, ez muga-

rik –gune militar edota estrategikoa–, ez itsasorik –Antzinateko komunikabideen arloan itsasorearen garrantzia izugarria dela oroit behar dugu–, ez hiri handirik –herrixkak, gehienbat–, ez meatze garrantzitsurik, ez bidegurutze aipagarriak,... Ebro ibaia da seinalaten ahal dugun ezaugarri garrantzitsu bakarra, eta ez Nafarroako Herribeherako lurralde guzietarako.

Ondorio zuzena: Mendialdean bizi ez zen baskoi populua hizkuntza nagusia ez zen latina. Latinak ez zuen lehenagoko hizkuntza nagusia ordezkatu. Orduan, zein zen bere hizkuntza nagusia? Zein zen bere egoera gizakulturalaren ezaugarri nagusia? Ez dakigu, oraindik ezin dugu deus adierazi, baina latina ez zela ziur gaude. Zalantzarik gabe.

OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Nafarroako Herribehera

Historikoki aldakorra eta zehaztezina zaigun nafar eremu geografikoa. Era zabal batean Nafarroako Mendialdea ez dena, hau ere historian zehar aldatu delarik. Funtsean, Ega Behea, Arga Behea, Aragoa Behea eta Ebro ibaien aldea. Erromatar aldi baskoien “Ager” deiturikoaren zati nagusia. Azken mendeetan Nafarroako hizkuntza banaketareki ere harremana izan duen kontzeptua.

Erromatar aldia Nafarroako Herribeheran

Nafarroako Herribeherari dagokion garai historikoa. Historialarien iritziz k.a. II. mendetik k.o. V. mendea arte luzatu zen, k.a. 195. urtetik k.o. 465. edota 472. urtea arte, historialari aunitzek aipaturiko data batzuk eskaini ditzagun. Eremu horretan lehenagoko eta berandua-goko egoera, oro har, nahikoa ezezaguna zaigu, II. Burdin Aroaren eta Antzinate Berantiarren gaineko datuak urriak direlarik. Gertakari hau dela medio, garaiaren mugaketa konbentzionala da hagitz.

Diglosia

“Komunitate batean bi hizkuntz sistema xede desberdinetarako erabiltzearen ondorioz gertatzen den egoera. Hizkuntz ukipenezko egoeran, bi hizkuntzen arteko menpekotasun-harremana gerta daiteke, eta egoera horri diglosia deritzo. Hau dela bide, hizkuntzen erabilere bereizketa sortzen da, bata erabilera jasoetako (administrazio, komunikabide, hezkuntzako) hizkuntza eta bestea maila apalagoko (famili giroko, lagunarteko) hizkuntza bihurtzen direlarik. Hauxe genuke egun euskarak gaztelaniarekiko eta frantsesarekiko bizi duen egoera.” *Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa*